

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013.



Zaldibiako Udala


[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak



-IKERKETA KUALITATIBOA-

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK]



ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK]

DISKURTSOAK



- ✓ Diskurtsoek baldintzatzen dute gertakarien aurrean egon daitezkeen iritzi eta jarrerak.
- ✓ Diskurtsoak era indibidualean ahoratzen dira, baina kolektiboki eraikitzen dira.
- ✓ Norbere diskurtsoa bere erreferentziazko taldean dagoen diskurtsoa islatzen du.
- ✓ Ditugun baliabideen muga, gai eremu batean egon daitezkeen diskurtso nagusiak jasotzeko diseinua egin behar da. Ohiko galdera: ze ardatzen arabera egituratzen dira diskurtso nagusiak?
- ✓ Jasotzen diren diskurtsoak ezin dira ordezkagarritasun estatistikoaren


ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK]

ELKARRIZKETATUEN EZAUGARRIAK AUKERATZEKO ARDATZ NAGUSIA ETA BERE BAITAN ERABILITAKO KATEGORIAK.



- Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarrek (3 elkarrizketa)
- Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrek (1 elkarrizketa)
- Euskal herriko beste herrialdeetan jatorria duten zaldibiarrek (1 elkarrizketa)
- Bere guraso edo aiton-amonetako batek Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrek (2 elkarrizketa)
- Guraso euskalduneko zaldibiarrek (5 elkarrizketa)

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK]



ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESANTAZIO SOZIALAK

1. ATALA



ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

- ✓ Bizi proiektua pertsona batek bere existentziarako markatzen duen norabidea da. Bere baloreen baitan, beharrak ase eta desioak betetzeko garatuko dituen ekintzek osatzen duten proiektua.
- ✓ Kasu hauetan bizi proiektuaren mesedetara jartzen da MIGRAZIO PROIEKTUA.
- ✓ Bizi proiektuak oinarri batzuk ditu beraien kasuan:
 - 1) Oinarri materiala.
 - 2) Oinarri sinboliko edo kulturala.
 - 3) Familia ereduaren oinarria.
- ✓ Pertsona hauen bizi proiektuen oinarrizko sailkapena:
 - 1) *Bizitza proiektua jaioterrian kokatzen duena epe ertain-luzean: jaioterrian etorkizun hobeago baten proiektzioa izanik migrazio proiektua 'inbertsio' gisa irudikatzen duena.*
 - 2) *Bizitza proiektua hemen kokatzen duena ez bairik gabe.*

✓ Euzkel Herriaren egoera eta erlazioen arteko modurik onenetakoa da jaioterria

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESANTAZIO SOZIALAK]

1.1. MIGRAZIO PROIEKTUEN INGURUKO ZERTZELADAK

RA EMIGRATU ETA ZERGATIK

- Zergatik Euskal Herria/Espainia?
 - Aukera kontzientea denean: herri ekonomikoki aberatsa eta oparo gisa irudikatzen delako.
 - Dei efektuaren ondorioz ala bateratze familiarragatik.
- Espainiara ala Espainia iparraldera emigratzen dutenaren irudikapena dute. Espainiar erreferentzia da nagusi.

R EZAGUTZEN DA ALDEZ AURRETIK

- Herri honen aberastasun ekonomikoaren berri jaso dute
- Informaziorik ez bereizgarri kultural, sozial eta politikoei buruz. Kasu gutxi batzuetan familiarrekoren batek kontatutako zerhait

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

1.1. MIGRAZIO PROIEKTUAREN INGURUKO ZERTZELADAK

MOTIBAZIO NAGUSIA, EKONOMIKOA

- Bizitza hobe bat lortzearen helburua, bizitza hobe hori zertan gauzatzen den migrazio proiektuaren fasearen araberakoa delarik.

ZEREKIN AURKITZEN DIRA BEHIN EUSKAL HERRIAN

- Inpaktu espaziala eta ingurune-inpaktua
- Talka kulturala: harreman estilo berriak, kultur eredu eta hizkuntza ezberdina...
- Sistema instituzional eta administratibo berriak

BIZI PROIEKTUAN ERAGIN GARBIA FAMILIAK

- Jatorriko herrialdearekin harremana eta lotura familiaren bitartez
- Askotan migrazio proiektuari familia zabalaren egoera ekonomikoari aurre egiteko ekintza zaila

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.2. BEHAR ETA HELBURU MATERIALAK ASETZEKO PROZESUA: INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOAREN BIDEAK

Hiru integrazio bide daude integrazioaren pertzepzio subjektiboa eratzerakoan:

1. **Integrazio sozio-ekonomikoa:** lan merkatuan eta gune urbanoan txertatzea, etxebizitzaren eskutik.
2. **Integrazio kulturala:** kultura autoktonoaren ereduak barneratzea edota aintzat hartzea, batez ere, hizkuntza autoktonoa.
3. **Integrazio politikoa:** euskal abertzaletasunaren helburu eta aldarriei atxikitzea.

Integrazio sozio-ekonomikoa aztertzeari
begira arakatu diren arloak:



ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.2. BEHAR ETA HELBURU MATERIALAK ASETZEKO PROZESUA: INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOAREN BIDEAK

2.1. SOLDATAPEKO LANA

- Edozein lan edozein preziotan: exigentzia gutxi eta edozein baldintzaren onarpena, jarrera diskriminatzaileak ere bizitzeraino
- Otik hasten den ibilbide profesionala: jatorriko lurraldean egindakoak ez du jarraipenik
- Sexuaren arabera ezberdintasunak:
 - *Gizonak*: indarrarekin lotutako eremuetan batez ere
 - *Emakumeak*: eremu pribatuan, zaintza eta garbiketan
- Lehen talkak lan eremuan: lan egiteko estilo berriak, lan esparruan garrantzia hartzen duten aldagai ezberdinak...
- Krisi ekonomikoa eta lan merkatuaren egoerarekin etorkizuna zalantzan:

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESANTAZIO SOZIALAK]

1.2. BEHAR ETA HELBURU MATERIALAK ASETZEKO PROZESUA: INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOAREN BIDEAK

1.2.2. ETXEBIZITZA LORTZEAREN ERRONKA

- Hastapenetan exigentzia gutxi: logela konpartituak, etxebizitza konpartituak eta edozein baldintzetan
- Seme alabak izan edo etortzean onartzen diren oinarritzko baldintzak aldatzen dira
- Eremu honetan esperientziak anitzak dira: batzuek zailtasunak bai eta besteek ez atzeritar izateagatik
- Egoera egonkortzean planteamendu berriak sortzen dira

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

1.2. BEHAR ETA HELBURU MATERIALAK ASETZEKO PROZESUA: INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOAREN BIDEAK

1.2.3. HERRITARREN ESKUBIDE SOZIALAK.

- Migratzaileak ikuspuntuan daudela sentitzen da gai honekiko, beraiekiko hautemate oker bat dagoela kritikatzeko delarik ('denak' laguntza sozialetatik bizi direnaren ideia izatea salatzen da).
- Diru laguntzetatik bizitzea pertsonaren hautua edo zoria dela aldarrikatzen da, ez jatorri kontua
- Betebeharrak eta eskubideak dituzten herritarren ikuspegia dute, eta **bi diskurtso mota** ezberdindu dira:
 - a) Eskubideetatik ---→ betebeharrak: estatuak laguntzak eskaini behar ditu, baina betebeharrak sortzen dira: saiakera bat egin behar da lana lortu eta egoera ekonomikoa hobetzeko, eta zintzo jokatu

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPARENTAZIO SOZIALAK]

1.3. ETORKINEN EGUNEROKO HARREMANAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

1.3.1. ABIAPUNTUAN EZBERDINTASUN POSIZIO BAT

- Hartzaile den herriarekiko errespetuzko jarrera bat dute
- Batzuk sumisio jarrera ere, bidegabekeren aurrean burua makurtuz

1.3.2. HARREMANAK BALDINTZATZEN DITUZTEN ELEMENTUAK:

- Etortzeko motibazioak eta egoera sozioekonomikoak
- Euskal Herrian daramaten denborak eta non proiektatzen den etorkizunak
- Egoera familiarrak: bakarrik, seme alabak izan edo ez....
- Generoak eta pertsonaren izaerak

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.3. ETORKINEN EGUNEROKO HARREMANAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

3.3. HARREMANEN INGURUAN EGITEN DEN BALORAZIOA:

- Helduen artean harreman errespetuzkoak, baina azalekoak eta eremu konkretuetan: lana eta eskolaren bueltan
- Haurren artean harremanak naturaltasun batekin. Klabea: etortzeko momentua. Nerabezaroa aro kritikoa euskal jatorriko nerabeekin lagun taldeak osatzerako orduan.

3.4. HARREMANEN INGURUAN DAUDEN POSIZIOAK

- A. Dagoenarekin konforme daudenak eta gehiagoren beharra sentitzen ez dutenak
- B. Dagoenarekin konforme egonda harreman gehiagoren desioa dutenak
- C. Harreman gehiago nahi ala ez planteatzen ez dutenak, horretarako denborarik ez dutela argudiatuta

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

1.4. EUSKARA eta EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEA

Kontuan hartu beharrekoak:

- Nolabaiteko integrazio kulturala bilatu behar da. "Barnebiltze defentsiboa" ez da bilatzen.
- Garrantzia handia du aurretik euskal kulturaren inguruan dagoen ezagutzak, eta horretan eragiten du Zaldibiara iristeko bideak (lehen urratsean ala bigarren salto batean iritsi diren)
- Integrazio kulturala bilatzen ari denak bi aukera ditu gurean:
 - Euskal kultura.
 - Gaztelerazko kultura.
- Zaldibian bai ala bai euskara eta euskal kulturaren aurrean jartzen dira.

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

1.4. EUSKARA eta EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEA

1.4.1. EUSKARAREN FUNTZIONALITATEAREN HAUTEMATEAK: PLUS BAT, HARREMANETARAKO BEHARREZKOA EDO ERRESPETUAGATIK IKASI BEHARREKOA

A) EUSKARA, PLUS BAT

- Integrazio sozio-ekonomikoaren erabateko garrantzia nabarmentzen da.
- Euskarak balio instrumentala du: lana bilatu edota hobetzeko aukerarekin lotzen da. Beraiek ikasi ez arren seme alabek ikastea 'praktikoa' ikusten da lan munduratzeari begira.
- Orain arte izandako lanetan ez da euskararen beharrik sentitu. Gaztelera nahikoa dela hautematen da.
- Zaldibian bizi direnetik aurrera, euskararekiko gerturatze bat ere ematen da, eta ez ikasi izanaren errua konpartitzen da, beraiek esfortzurik egin ez, eta

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.4. EUSKARA eta EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEA

B) EUSKARA, ZALDIBIAR BAT GEHIAGO IZATEKO GILTZA

- Integrazio sozio-ekonomikotik haratago integrazio kulturalak bere pisua du.
- Zaldibian harremanak izan eta bat gehiago sentitzeko euskara beharrezkoa dela sentitzen da
- Seme alabekiko lotura ere ez galtzeko balioa atxikitzen zaio euskarari
- Euskarara gerturatu eta ikasteko urratsak ematen dira

C) EUSKARA, BERTAKO HIZKUNTZA IZANIK ERRESPETUAGATIK IKASI BEHARREKOA

- Integrazio sozio-ekonomikoari garrantzia ematen zaio, baina hizkuntza minoritarioekiko sentsibilitate bat dago.
- Enpatia horretatik euskararekiko gerturatze bat ematen da, hizkuntzaren alde

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.4. EUSKARA eta EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEA

1.4.2. EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEA

- Integrazio sozioekonomikoan zentratua egon ala ez, euskal kulturaren ezagutza bat badago eta egunerokotasun batekin lotzen da
- Euskal eta erdal kultura bereizten dira
- Euskal kultura eta euskararen arteko lotura egiten da
- Euskal kulturari balore batzuk atxikitzen zaizkio eta izateko modu batekin lotzen da: euskaldunak dira itxiak, hitzezkoak, leialak...
- Adierazpen eta ekoizpen eremu batzuekin ere lotzen da: literatura, musika...
- Ezagupen bat badago, seme alaben eskutik areagotzen doana

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.5. POLITIKAREN GAIAREN INGURUKO HAUTEMATEA

- Orokorrean ez da interes handia sortzen duen gaia bezala ikusten eta honen inguruan hitz egitea kosta egiten da
- Halere, bi gauzekin lotzen da Politika hitza:



1.5.1. POLITIKA: EGUNEROKO GAIEN INGURUKO POLITIKA

- Espainiar estatuaren erreferentzia hartzen da kontuan adiera honetan
Karruak eta zaldibiarren artean ez dagoen lotura

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.5. POLITIKAREN GAIAREN INGURUKO HAUTEMATEA

5.2. POLITIKA: EUSKAL GATAZKA POLITIKOA

posizio ezberdintzen dira:

A) POLITIKAZ EZAGUPEN HANDIRIK EZ DUELA AITORTZEN DUENAREN POSIZIOA

B) EZAGUTZA MAILA BAT DUENAREN POSIZIOA

- Distantzia batekin begiratzen zaio politikaren auziari, baina iritzi osatu bat dago euskal gatazka politikoaren inguruan
- Gatazka politikoaren inguruko sentsibilizazio bat badago, jatorriko herrialdeetan bizi den egoerak hemengo gatazka enpatia begirada batekin begiratzera eramaten du
- Herri batek independentziaren alde egitea eskubidetzat onartzen da, baina ondorio praktikoekin lotura egiten da. Eta *2 jarrera kontrajarri* daude:
 - Ikuspegi ekonomiko batetik euskal herria independente izanik egoera

ESPAINIAKO ESTATUZ KANPOKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

1.6. MIGRAZIO PROIEKTUEN BALORAZIOEN HAUTEMATEAK ETA AURRERA BEGIRAKO ITXAROPENAK

- Migrazio proiektu batean beti dago hasierako espektatibak eta errealitatean jarraitu den bidearen arteko kontrastatze bat. Eraitzen arabera migrazio proiektua birdefinitu eta eraldatzen joaten da
- Elkarrizketatuen proiektuen balorazioa ona da, Euskal Herrian luzerako geratzeko leku atsegina aurkitu dute
- Esperientzia txarrak bizi izan arren (lanaren eremuan batik bat), balantzak positibo aldera jotzen du
- Zerbitzuen inguruan egiten den balorazioan bi aldaera daude:
 - Osasun arloan eta udal zerbitzua ondo baloratzen da, gertukoa eta efizientea
 - Mugikortasunari loturiko zerbitzuetan muga sentitzen da Zaldibian
- Euskal Herrian bizitza proiektatzea bi aldaqaiek baldintzatu dezaketela uste da:

ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK.

2. ATALA



ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

2.1. KULTUR ERREFERENTZIA EUSKALDUNA EDOTA GAZTELERADURA DUTEN ZALDIBIARREN ELKARBIZITZAREN BILAKAERA

OINARRIZKO ZERTZELADA BATZUK

- Zaldibiara 50-70 hamarkada bitartean etorritako pertsonen kopurua nabarmena izan zen, erroldatutakoen kopurua inoizko altuena izatera iritsi zen, 2025 biztanlerekin.
- Gurean immigrazio prozesu hori eta jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonen arteko harreman berriak sortzen dira identitate nazionalen lehia eta talka dagoen lurralde batean.

ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

2.1. KULTUR ERREFERENTZIA EUSKALDUNA EDOTA GAZTELERADURA DUTEN ZALDIBIARREN ELKARBIZITZAREN BILAKAERA

2.1.1. ELKARBIZITZAREN GORABEHERAK HIRU BELAUNALDIEN PRESPEKTIBAN


- Espainiar estatuko migratzaileen perzepzioan estatalitatearen erreferentzia izanda, barne migrazio bat egiten ari ziren bizipena zuten, jaso behar zituen lurraldearen berezitasun kulturalak diluituta agertzen dira etortzeko momentu horretan
- Espainiar migratzaileen etorrerak lan indarrarekin batera, kultura eta hizkuntza baten etorrera suposatu zuen. Honen aurrean zaldibiarren artean nabarmendu zen sentsazioa: beldurra eta haustura
- Testuinguru horretan identitateen arteko talka eta bi komunitateen sorrera sortzen da. Urte batzuetan aurkakotasun batean eraikitzen dira harremanak
- Eskola bateratzea inflexio puntua izan zen
- Gaur egun bi komunitateen existentzia gutxi dagoela nabarmentzen da. Arrazoen artean:
 - Erdaldunak euskarara gerturatu dira
 - Bikotekideak osatu dira zaldibiar jatorriko zaldibiarrekin, bikote mistoak...

ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

2.2. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN INGURUKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK

DINARRIZKO ZERTZELADA BATZUK

- Zaldibia herri euskalduna da. Ez da erreza euskal kultura eta euskararen aurrean ez kokatzea. 2006ko Eustaten datuen arabera, %68,9a euskaraz aktiboak dira. Bietan aktiboak beste %21,4a.



ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

2.2. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN INGURUKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK

2.1. DAUDEN POSIZIOAK ETA DISKURTSOAK

A) EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA ERDIGUNEAN JARTZEN DUTENAK

- EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA DA ERDIGUNEA: bertakoei identitatea ematen diena eta presente egon behar du bizitzako eremu guztietan.
- Euskalduna izatea arrotasunez bizi da.
- Euskararen etorkizuna ez da zalantzan ikusten zaldibian bertan, baina zaindu behar da, batez ere kalitatea ez okertze aldera.
- Posizio honetatik euskarara gerturatzen dena biziki baloratzen da.
- Arriskua: kanpotik datorrenarekiko bi jarrera egon daitezke:
 - Jarrera zabala: kultur eredu ezberdinek elkarri elikatu ahal diotela uste da
 - Jarrera itxiagoa: kanpotik datorrenak zertan integratu behar duen argi izanda
- Abertzalea herria maite duen pertsona bezala ikusten da. Idenpendentziaren aurrean bi jarrera daude:

ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK]

2.2. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN INGURUKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK

B) EUSKAL HERRIA HERRI BIKULTURAL GISA IRUDIKATZEN DUTENAK

- Posizio honetan kokatzen direnak ama hizkuntza gaztelera dute eta espainiar erreferentzia dute
- HIZKUNTZEN HARREMANARI DAGOKIONEZ Euskal Herria herri elebidun gisa ulertzen dute.
 - Beraz bi hizkuntzak bermatuak behar dute esparru guztietan, eremu formalean bereziki.
 - Seme alabek ere bi hizkuntzak jakitea desio da, berditasun batean.
 - Euskara tresna erabilgarri gisa ikusten da, lan eremurako atak zabaltzen dituen, eta herritarrekin desio diren harremanen sakontasunaren arabera baliogarri
- EUSKAL KULTURA tradizio alderdiarekin lotzen da gehiago. Beraien egunerokotasunean txertatua ez dagoen kultura bat bezala ikusten da.
- POLITIKArekin euskal gatazka politikoa lotzen da.

Ikuspegi estereotipatuak dago abertzaleotasunaren inguruan eta jarrera separatista

ESPAINIAKO ESTATUKO JATORRIA ETA BERTAKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

2.2. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN INGURUKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK

C) ESPAINIAR ESTATUAREN BARRUAN MENPEKOTASUN EGOERA BATEAN EUSKAL HERRIA KOKATZEN DUTENAK

- Diskurtso honen berri 3. pertsona batean jaso da, hau da, elkarrizketatuen artean ez da jaso baina beraiek diskurtso hau egon daitekeela nabarmendu dute
- Erabat minoritarioa den diskurtsoa dela komentatu da
- Gaztelera da batzen gaituen hizkuntza, beraz euskara ikastea ez da beharrezkotzat ikusten eta euskararen erabilera soila egitea ez da ontzat jotzen

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK

3. ATALA



ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.1. DISKURTSO NAGUSIAK

GINARRIZKO ZERTZELADA BATZUK

- Etorkin berriekiko ikuspegiaren inguruan imaginario sozialean egiten den lotura:

Etorkin berriak dira:

- Estatu Espainiarretik kanpoko estatutik datorren pertsona
- Bere jatorriko herrialdean egoera ekonomiko kaxkarra duten pertsonak, motibazio ekonomikoak bultzatuta Euskal Herrira etorri direnak


- Etorkinarekiko ikuspegian eragiten dute:

- Imaginario sozialean egiten den lotura horrek
- Ezberdintasunarekiko kokapenak:
 - Ezberdintasuna mehatxu gisa bizi da eta beldurra sortu dezake, ez da ezer berezirik sentitzen,

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.1. DISKURTSO NAGUSIAK

Hiru diskurtso ezberdin ageri dira etorkin berrien inguruan:



1) IKUSPEGI ZABALA ETA PERTSONENGAN ZENTRATUA

- Etorkinen inguruan ikuspegi zabala dute, etorkina da kanpotik datorren oro. Jatorria ez da epaitzen.
- Posizio honetan dauden pertsonak egonkortasun eta ziurtasun egoera batean daude, familiak edo lagunarteak babesten dituen testuinguru batean
- Ezagutza minimo batetik abiatzen dira. Sentsibilitate eta enpatia bati esker, kontzientzia maila bat dute immigratzeak duen gogortasunaren inguruan

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.1. DISKURTSO NAGUSIAK

2) DISKURTSO INDIFERENTEA:

- Diskurtso indiferentean, ez zaio aipamenik egiten immigrazio prozesuak berak ekar dezakeen gogortasunari.
- Etorkin berria pobrezia egoera batean eta motibazio ekonomikoak bultzatuta Euskal Herrira etorri den pertsona gisa ikusten da. Batez ere lan eskua apotatzen dutela nabarmentzen da
- Diskurtso honetan, etorkin berriek bestelako ohiturak eta bizimodua dituzte, horrek aniztasun kulturala dakar. Aniztasun kultural hori ez da ikusten ez mehatxu ez aukera gisa; hor kanpoan dagoen zerbait da, norberari askorik eragiten ez diona. Hori dela eta, ezberdintasun horietaz ez da konnotazio negatiborik egiten.

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.1. DISKURTSO NAGUSIAK

3) MESFINDANTZATIK ERAIKITAKO DISKURTSOA:

- Etorkin berria pobrezia egoera batean dagoen herrialde batetik datorren pertsona da
- Euskal Herrian paradisuan balego bezala irudikatzen da, eta haren mendekotasun egoera erabat ezkutatzen da.
- Etorkinak dira dirua irabaztera datozen pertsonak, epe baterako eta integratu nahi izan gabe. Ez zaie atxikitzen bertako kulturaren murgiltzeko gogo eta asmorik.
- Aportatzen duten bakarra lan eskua da, aniztasunari ez zaio bestelako balorerik ematen
- Etorkin berriei begira jarri eta ezberdintasunak soilik ikusten dira, konnotazio negatiboak duten ezberdintasunak, baina justu ere. Hori dela eta, estereotipoak

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.2. EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DIREN HARREMANEN NONDIK NORAKOAK: ZALDIBIARREN IKUSPEGIA

3.2.1. HARREMANEN INGURUAN EGITEN DEN BALORAZIOA

- Egun, harremanak oso puntualak dira, azalekoak eta esparru konkretuetan ematen dira
- Helduen artean lan eremua eta eskolaren bueltan ematen da interakzio gehiena. Aisialdian eta eremu informalean ez dago apenas interakziorik.
- Umeen artean harremanak naturalak dira.
- Integrazioaren inguruan ikuspegi asimilatzaile baten zantzuak badaude. Egon diren gatazka edo talka adibide urriak ohitura eta tradizioen eremuan izan dira.
- Elkarbizitzarako harremana beharrezkoa ikusten da
- Jatorri ezberdineko harremanen artean baino, pertsonen arteko harremanaren krisia ikusten da honetan eragiten duen aldagai bezala

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.2. EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DIREN HARREMANEN NONDIK NORAKOAK: ZALDIBIARREN IKUSPEGIA

3.2.1. HARREMANEN INGURUAN DAUDEN JARRERAK ETA POSIZIOAK

- A) PERTSONAREN ABERASTASUNA BALIOAN JARRITA GERTURATZEKO NAHIA ADIERAZTEN DUTENAK
- Aniztasuna modu aberasgarrian ikusten dute. Harreman eza edo eskasiak kezkatuta harremanen balioari heldu eta sustatu behar direla uste da
 - Eremu informalean kontakturen bat badago eta oinarrizko ezagutza bat.
 - Harremanik ez izatearen ardura ez da bestereengan jartzen
 - Ezezagutzatik aurreiritziak sortzen ditugula argudiatuta horretan lanketa baten beharra aipatzen dute

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.2. EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DIREN HARREMANEN NONDIK NORAKOAK: ZALDIBIARREN IKUSPEGIA

B) JARRERA INDIFERENTEA BAINA IREKIA DUTENAK

- Harreman falta hori ez da kezka sortzen duen gaia
- Espazioa konpartitzen da baina ez dago interakziorik
- Harremana modu natural batean suertatzen bada ez da ukatzen, baina ez da bilatu edo probokatzen ere

C) JARRERA INDIFERENTEA BAINA ITXIA DUTENAK

- Mesfidantzatik eraikitako diskurtsoa dutenen jarrera da.
- Etorkin berriei 'goitik' begiratzen zaie, harremanak izatekotan benefikoak izaten dira
- Ez da gerturatzeko beharrik sentitzen, ez da ezer aportatu dezakeenik sentitzen. Muturrera eramanda, mehatxua sentitu daiteke aniztasun horren

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.3. ETORKIN BERRIEN ESKUBIDE SOZIALAK

3.1. DISKURTSOAK

A) ESKUBIDE BERDINTASUNA BEHIN SISTEMAN SARTUTA

- Pertsona oro, jatorriak baldintzatu gabe, berdintasun batean kokatzen dira laguntzekiko. Baina administrazioak jarritako baldintzak bete behar dira horretarako. Batez ere lana eta kotizazioaren eskutik datoz eskubideak.

B) ADMINISTRAZIOAREN SISTEMA JUSTUA DEN ZALANTZAN JARTZEN DA

- Jarrera zalantzakorra dago. Baldintzak beteta berdintasun batean kokatzen dira herritar guztiak. Baina kasu batzuetan diskriminazio positiboa egiten denaren zalantza sortzen da.

C) JAIOTERRIAREN ARABERA LEHENTASUNAK EGON BEHARKO LUKETELA USTE DA

- Administrazioaren sistema zalantzan jartzen da. Laguntzak emateko modua bera. Eta laguntzei egiten dien jarraipen eskasa salatzen da.

ETORKIN BERRIEI BURUZ ZALDIBIARREN DISKURTSOAK]

3.3. ETORKIN BERRIEN ESKUBIDE SOZIALAK

3.3.2. ESKUBIDE SOZIALEN GAIAREN INGURUAN HAINBAT ONDORIO

- Hartu-eman logika bat dago beti atzetik. Eskubideak eta betebeharrak multzo berdinean sartzen da, inori ez zaio zerbait ematen 'besterik gabe'
- Posizio argi bat izateko zailtasuna dago
- Diskurtso baztertzaileak lana eta laguntza sozialen eremuan sortzen dira, ez hezkuntza eta osasunaren eremuetan
- Jarrera baztertzaileak 3. pertsonan kontaktzen dira
- Kasu gutxi batzuetan onartzen da bizipenaren aurrean diskurtsoa mantentzea zaila dela
- Estatuari paper garrantzitsua egozten zaio eskubideen egikaritzan. Kasu batzuetan kontrol diskurtsoak agertzen dira

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN
ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA
BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK.


4. ATALA



JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK


4.1. DISKURTSOETAN ATZEMAN DAITEZKEEN INTEGRAZIO EREDUAK

skurtsoetan 3 eredu topatu dira kulturen arteko harremanak irudikatzeari dagokionez:



JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK]

4.1. DISKURTSOETAN ATZEMAN DAITEZKEEN INTEGRAZIO EREDUAK



1. EREDUA: ANIZTASUNA BALIOAN JARTZEN DUEN KULTURARTEKOTASUNA:


- Kultura guztiekiko errespetu bat behar da, berdintasun batetik hartu emanak kokatzen dira
- Aniztasunarekiko errespetuan elkar osagarritu eta aberastean oinarritutako harremanak eraikitzen dira
- Gatazka ez da ekiditen, hauei errespetuz eta elkarrizketa bitartez irtenbidea eman behar zaie. Komunikaziorako espazio horizontalak sortu behar dira
- Ezberdintasunekin berdintasun batean bizitzeko aukera eman behar da
- Elkarren artean egiteko modu berriak sortu behar dira

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK]

4.1. DISKURTSOETAN ATZEMAN DAITEZKEEN INTEGRAZIO EREDUAK


1. EREDUA: INTERAKZIO FALTAN OINARRITZEN DEN KULTUR BERDINTASUNA

- Eskubide berdintasuna sustatzen da ezberdintasun kulturala onartuz.
- Baina ez dira harremanak eta interakzioa sustatuko
- Interakzio eza oianrri izanik gatazkarako ere aukerak murrizten dira. Elkarbizitza osasuntsu bat horrela ulertuko da. Bloke ezberdinetan, hartu emanik gabe, bizi diren jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkar egote gisa.



2. EREDUA: KULTURALISMO ASIMILATZAILEA

- Kultura ezberdinetako pertsonak beraien balore



JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK]

4.2. ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN, KULTUR ARTEKOTASUNEAN NARRITUTAKO EREDURA GERTURATZEKO AUKERA ETA OZTOPOAK ZALDIBIAN

BIAPUNTUA, INTERAKZIO GUTXIKO ELKABIZITZA

- Elkarrizketatu guztiek onartzen dute interakzio askorik ez dagoela.
- Interakzio falta horretan, kultur aniztasunaren eredura gerturatzen dena, ongi sintonizatzen du jatorri ezberdinetako herritarrekin:
 - Etorrin askorentzat eroso da, integrazio sozioekonomikoan jartzen da esfortzua.
 - Bertako jatorria dutenentzat ere eroso da, aldaketarik ez du suposatzen.
- Interakzioa dagoen esparruetan daude lehen gatazkak: eskola eremuan. Gatazka beharrezkoa da ikuspegi eraikitzaile batean aurrera egin nahi bada.

ERRI TXIKIA IZATEAREN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK

4.2. ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN, KULTUR ARTEKOTASUNEAN NARRITUTAKO EREDURA GERTURATZEKO AUKERA ETA OZTOPOAK ZALDIBIAN

LKARREKIN HARREMANAK SORTZEKO MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA

- Zailtasuna: herritarren gogo falta harremanak sortzera begira. Konfort espazio batean egonik hortik ateratzeak energia, denbora eta gogo eskatzen du
- Aniztasunak dakarren aberastasunarekiko sentsibilizatutako pertsonen motibazioa garrantzitsua da eta heldzea komeni da

USKAL KULTURA INDARTSU BATEN AURREAN KOKATZEAREN AUKERA ETA OZTOPOAK

- Aukerak: euskal kulturaren aurrean kokatzea zaldibian. Espainiar eta euskal identitateen arteko talka oso modu apalean bizi da.
- Arriskua: euskal kulturara gerturatzearekin hau erabat asimilatu ebhar

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK

4.2. ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN, KULTUR ARTEKOTASUNEAN NARRITUTAKO EREDURA GERTURATZEKO AUKERA ETA OZTOPOAK ZALDIBIAN

INTEGRAZIO KONTZEPTUAREN EGOKITZAPEN BEHARRA

- Integrazioarekiko ikuspegia aldatzea komeni da.
- Gaur egun integrazioarekin ulertzen da:
 - Norabide bakarreko prozesua da, datorrena integratzen da
 - Hasiera eta amaiera duen prozesu da
 - Argi dago non eta zertan integratu behar den
- Integrazioarekin ulertu beharko genuke:
 - Bi norabideetan edo norabide aniztetan ematen den prozesua da, pertsona orori eragiten diona
 - Prozesu dinamiko bat da, etengabe birsortu eta berritzen doana
 - Ezin da argi izan zertan integratu behar den aurrez

JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINA DUTEN ZALDIBIARREN ARTEKO EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK]

4.3. AURRERA BEGIRA EGITEKO GOGOETAK

- Erronka bihurtzen da etorkin berriek suposatzen duten %9,2a ikustaraztea.
- Aurrera begira zer?
 - Ongi egiten dena egiten jarraitu. Elkar ezagutza sustatzera begirako proiektuekin aurrera egin.
 - Egiten den gauza batzuetan hobetu, kultur arteko harremanen ikuspegia txertatuz
 - Ekintza berriak martxan jarri:
 - Diskurtso baztergarriak balio gabetzerara begira
 - Pertsonen balio garritasuna ikustarazi
 - Integrazioa ulertzeko moduaren eraldaketa egitea komeni da, ezberdinen arteko elkarrizketarako espazioak sortuz eta integrazio esperientzia berriak balioan jarriz (auzoko....)

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013.



Zaldibiako Udala

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketak aplikatuak



-IKERKETA KUALITATIBOA-